



Fitxa teknika / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Errateko nituenak**
(Cuzcoko kronika)

Egilea / Autor: **Pello Salaburu**

Saila / Colección: Bakanak, 15

ISBN / EAN: 978-84-9746-895-4

Salneurria / Precio: 19,50 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 280

Formatua / Formato: 16 x 24 cm

Egilea / El autor

Pello Salaburu (Arizkun, Baztan, 1951). Hizkuntzalaritza ikasketak egin zituen Deustuko Unibertsitatean, EHU eta AEBetako hainbat unibertsitatetan. Hamabi bat liburu argitaratu ditu, bakarrik edo elkarlanean, euskal gramatika eta hizkuntzalaritzaren inguruan, besteak beste: *Baztango euskalkiaz* (1980); *Ikaslearen esku gramatika* (1981); *Hizkuntzaren soinu egitura* (1984); *Arau fonologikoak* (1984); *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* (1987az geroztik); *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia* (2005). Euskal Herriko Unibertsitateko errektore ohia; Euskaltzain oso da 1985az gero; eta Euskaltzaindiko Euskara Batuko Batzordearen burua gaur egun.

Aurretik bi saiakera argitaratuak ditu: *XX. Mendearen argi-itzalak* (2001) eta *Euskararen etxea* (2002).

Lana / La obra

Pello Salaburuk 2012ko udazkenean lan bidaia bat egin behar izan zuen Cuzcora. Hala aitortzen du berak liburuaren sarreran: “Nola bakarrik ibiltzen nintzen maiz kara hango karriken artean, Cuzcora egin nuen bidaiaren artekek hainbertze oroitzapen ekarri zizkidaten gogora, nire bizitza lanbrotuan zehar zinez edo ustez gertatuak, eta horiek guziak mantso-mantso paper mutur batean paratzen hasi nintzen”.

Alderdi horretatik *Errateko nituenak* bada bidaia baten kronika eta bestetik oroitzapen liburu bat ere. Hango eta hemengo gauzei buruz autoreak daukan iritzien azalpena ere bada. Aho bizarrik gabe mintzo da gure egoeraz eta bizitzaz. Eta, batzuetan, “hango” kontuez ari dela, kitxua hizkuntzaz adibidez, susmoa sartzen zaio irakurleari ez ote den, zehar bidez bada ere, hemengo kontuez ere ari eta alderantziz.

“Paperak bete ahala, hango historiak, eta hemengoak, nire bizitzan aspaldi gertatuak eta oraingoak –denak batera etortzen baitziren uholdean, bereizketarik gabe–, ahal nuen moduan josten saiatu nintzen, tarrapatata batzuetan, atzendu baino lehena, baina, egia erran behar baldin badut, azkenean ongi ez nekien eskribitzen ari nintzen hura bidaiaren oroitzapena zen, edo eskuek, horretako baimenik izan gabe, irristan ekoizten zuten ezin baratuzko jariora”.

Baina beste gauza bat ere bada *Errateko nituenak*: iritzia eta kronikaren fikzioaren eta errealtatearen nahasketa erakargarri bat, prosa bikain batean garatua. Ekialdeko euskalkietatik euskara batuari ekarri sendoa egiteko saio eredugarria.

ISBN: 978-84-9746-895-4



9 788497 468954

www.erein.com


erein